

HONDAKIN BILKETA ZERBITZUA KOMERTZIOENTZAKO GIDA

(Gauza bakoitza bere tokian)



Mank
s a k a n a

Jaun/andere agurgarri hori,

Dakizunez, hondakin bilketa sistema berria martxa jarri da Sakanan. Guztiontzako ohitura berri bat denez, birziklatze gida bat bidaltzen dizugu aldaketa guztiak azalduz. Komenigarria da ondorengo orrialdeak arretaz irakurtzea.

Hona hemen bilketa ordutegia:

ORDUTEGIA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
Goizez	ORGANIKOA	ONTZI ARINAK	PAPERA-KARTOIA	ORGANIKOA	ONTZI ARINAK	ORGANIKO ESTRA
Eguerditik aurrera		FILMA		ERREFUSA	KARTOI ESTRA	

Zerbitzu estrak (kartoi estra eta organiko estra) espreski eskatu duten komertzio eta enpresei soilik emango dira.

Gainerako bilketak material hau ateratzeko ontzia eskatu duten enpresa eta komertzioei burutuko zaizkie. Ontzirik eskatu ez den kasuetan suposatuko da ez dela material hori sortzen. Hezitzaileek enpresara buruturiko bisitan adostutako ontzietan atera beharko dira materialak.

Azkenik, gogorarazi nahi dizuegu ez dela inongo frakziotan edukiontzitik kanpo dagoen materialik jasoko (kartoia izan ezik) eta egun bakoitzean tokatzen den materiala soilik jasoko dela, inolaz ere nahasturiko ezer.

Besterik gabe, informazio gehiago behar baduzu gurekin harremanetan jar zaitezke, 900 730 450 doako telefonoan, informazio bulegoetan (Irurtzunen, Arakilgo udaletxearen ondoan; Etxarri Aranatzeko udaletxean eta Olaztiko Kultur etxean) edo posta elektronikoko bidez (info@sakana-mank.com).

Informazio hau baliagarri izango zaizulakoan, agurtzen zaitugu.

Adeitasunez,



Aitor Karasatorre

Sakanako Mankomunitateko lehendakaria

HONDAKIN BILKETA GIDA

MATERIA ORGANIKOA

Zer da materia organikoa?

- Janari hondarrak, animalia zein landare jatorrikoak, gordinak zein sukaldatuak
- Materia organikoarekin zikindutako paperezko ezpain zapiak eta sukaldeko papera, eta erabilitako mukizapiak
- Zotzak, poxpoluak, kortxo naturalezko tapoiak
- Fruta azalak, fruitu lehor eta arrautza oskolak
- Kafe hondarrak eta infusio poltsak

Zer **EZ** da materia organikoa?

- Plastikozko tapoiak → Ontzietara
- Pixoihalak → Errefusera
- Zigarro-mutxikinak → Errefusera
- Hautsa → Errefusera
- Errautsa (hotza) → Errefusera



ONTZI ARINAK

Zer dira ontzi arinak?

- Aluminiozko edo burdinezko edari eta kontserba latak
- Tetrabrik-ak
- Plastikozko edari eta elikagai botilak
- Garbiketa produktuen plastikozko botilak eta ontziak (toxikoak ez direnak soilik)
- Erabili eta botatzeko plastikozko basoak, platerak eta mahai tresnak
- Poliestireno hedatuzko (porexpan) elikagai erretiluak
- Aluminioz eta gainerako aluminiozko materialez egindako elikagai erretiluak
- Jogurten eta flanen plastikozko ontziak, tapekin
- Beirazko ontzien metalezko tapak
- Botila txapak



Zer **EZ** dira ontzi arinak?

- Erabilitako pintura latak → Kudeaketa pribatua/Garbigune Mugikorra/Arbizuko Garbigunera
- Erabilitako disolbatzaile latak eta botilak → Kudeaketa pribatua/Garbigune Mugikorra/Arbizuko Garbigunera
- Botiken ontziak → Botikara



PAPERA ETA KARTOIA

Zer da papera eta kartoia?

- Prentsa papera, aldizkariak, publizitate esku-orriak, zuri beltzean zein koloretan inprimatuak
- Gutun azalak, orriak, paper jarraikia eta bulegoko paperezko gainerako materialak
- Erabili eta botatzeko ostalaritzako paperezko erretiluak eta basoak
- Zapiak eta mahai zapi garbiak
- Kartoizko kutxak
- Arrautza ontziak, jogur ontzien paperezko bilgarriak eta komuneko paperaren kartoizko zilindroak
- Kartoizko bilgarriak eta babesgarriak



Zer **EZ** da papera eta kartoia?

- Materia ez organikoz zikindutako papera → Errefusera
- Materia organikoz zikindutako paperezko zapiak, sukaldeko papera eta paperezko mahai zapiak, eta erabilitako paperezko mukizapiak → Organikora
- Klipak eta grapak → Errefusera

ERREFUSA

Zer da errefusa?

- Zeramikazko taza eta plater apurtuak
- Hautsa eta zigarro-mutxikinak
- Birziklatu eta berrerabili ezin daitezkeen pixoihalak, konpresak eta tanpoiak
- Idazmahaiko material gastatua
- Sendaketa-hondarrak, esparatrapuak, gasak eta tiritak
- Hautsitako plastikozko ontziak, erabilitako kreditu txartelak eta supiztekoak
- Babesgarri gisara erabiltzen den porexpana
- Gomazko eta latexko eskularruak



Zer **EZ** da errefusa?

- Disolbatzaile eta pintura hondarrak → Kudeaketa pribatua/Garbigune Mugikorra/Arbizuko Garbigunera
- Pilak eta metatzaileak → Kudeaketa pribatua/Garbigune Mugikorra/Arbizuko Garbigunera
- Olio mineralez, pinturaz eta disolbatzailez zikindutako trapuak → Kudeaketa pribatua/Garbigune Mugikorra/Arbizuko Garbigunera
- Paratxokeak, kristal laua edota eskonbroak → Kudeaketa pribatua/Garbigune Mugikorra/Arbizuko Garbigunera
- Material industrial toxikoak → Kudeaketa pribatua



BEIRA (igluetan bota beharko da)

Zer da beira?

- Kolore guztietako beirazko botilak eta kontserba ontziak
- Kosmetika produktuen beirazko ontziak



Zer **EZ** da beira?

- Zeramikazko tazak eta platerak → Errefusera
- Plastikozko eta metalezko tapak → Ontzietara
- Kortxo naturalezko tapak → Organikora

FILM PLASTIKOA ETA PLASTIKO GARDENA

Zer da filma?

- Enbalaketak eta retraktilatutako materialek ingurua biltzeko ekartzen duten plastiko gardena
- Babesgarri gisara erabiltzen den burbuilaz hornituriko plastiko gardena



Zer **EZ** da film plastikoa eta plastiko gardena?

- Koloretako plastikoa orokorrean → Kudeaketa pribatua (kantitate haundietan) edo errefusera
- Flejeak → Errefusera
- Plastikozko ontzi arinak → Ontzietara



KUDEAKETA PRIBATUA

Atez ateko hondakinen bilketa selektiboarekin hiri hondakinei asimilagarri diren hondakin arriskugabeak jasotzen dira. Hauxez gain posible da enpresa bakoitzak hondakin industrial toxiko arriskutsuak sortzea. Hauek pribatuki kudeatu behar dira.

Kudeaketa pribatua behar duten materialak hauek dira: eskonbroak, eskoriak, metala, olio begetala, tonerrak, gurpilak, katalizatzaileak, etab.



Hondakinen kudeaketa pribatua enpresa bakoitzaren ardura eta betebeharra da.

Zalantzarik baduzu edo gure laguntza behar baduzu, deiguzu 900 730 450 doako telefonora edota e-mail bat bidali info@sakana-mank.com helbidera.

Internet-en informazio gehiago aurkituko duzu esteka hauetan:

RCD-een kudeaketa

http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/6260374B-CE0D-4652-9B76-4F66D4D2150E/250492/Gestores_Autorizados_RCDs_Navarra.pdf

Zer jakin behar nuke industrian sortzen diren hondakinei buruz?

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Desarrollo+Rural+Industria+Empleo+y+Medio+Ambiente/Publicaciones/Publicaciones+propias/Publicaciones+medio+ambiente/Publicaciones+Periodicas/Que+deberia+saber+de+residuos+industriales.htm

Europako hondakin sailkapena. Nola jakin hondakin bat arriakutsua den ala ez?

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Desarrollo+Rural+Industria+Empleo+y+Medio+Ambiente/Planes+especificos/Acciones+medio+ambiente/Informacion+ambiental/Factores/Los+residuos/Codigos+LER/

Hondakinei buruzko ohiko galderak.

http://www.ganasa.es/areas/calidad-ambiental/residuos-suelos-contaminados_oficina_preguntas-frecuentes.aspx

Bilatu kudeatzen eta garraiatzen dituzten kudeatzaile baimendutak, garraiolariak, eragileak eta tratulariak

<http://www.ganasa.es/gestion-residuos/gestion-residuos-buscador.aspx>